

Kontsumo jasangarriago baten alde

**KAFE KAPSULAK BIRZIKLATZEKO PROIEKTUA
ZABALDU DU EROSKI-K, ESPAINIAN
AITZINDARIA DENA BANAKETA HANDIAREN
ARLOAN**

- Iaztik EAEko, Nafarroako eta Balearretako dendetan garatu duen esperientzia pilotuari esker, hamar tona kafe kapsula baino gehiago bildu ditu
- Ekimen horren bidez, kapsulek dauzkaten lehengai guztiak berreskuratu ahal dira eta, era horretan, ekonomia zirkularra sustatu
- EROSKI konpromisoa hartu du kontsumo arduratsuarekin, eta bezeroei erraztasunak eskaini nahi dizkie kafe kapsulen kontsumoak ingurumenean duen eragina gutxitzeko

Elorrio, 2019ko abenduaren 3a.- [EROSKI](#)k lehengo bidetik jarraitzen du kontsumitzaileari erraztasunak ematen kontsumo ohitura jasangarriagoak har ditzan, eta sare komertzial osora zabaltzeko kafe kapsulak jasotzeko proiektu aitzindaria. Azaroan hasi da pixkanaka zabaltzen, eta 2020ko udaren amaieran bukatuko du. Iaz, EROSKI martxan jarri zuen proiektu pilotu bat EAEn, Nafarroan eta Balearretan dituen saltokietan, eta hala, elikadura kateetan lehena bihurtu zen Espainian edukiontzi espezifikoak ipini zituen bezeroek kafe kapsulak birziklatzera bota ditzaten. Lehen esperientzia horren bitartez, dagoeneko hamar tona kafe kapsula baino gehiago bildu dituzte.

Kalkuluen arabera, horrelako 130 tona hondakin bilduko dituzte edukiontziok sare komertzial osora zabaltzean. Elikaduraren arloan dihardutenen artean horrelako edukiontziak ipini dituen lehena izateaz gain, EROSKI aurrea hartu die Nafarroako eta Balearretako araudiei; izan ere, autonomia erkidego horietan debekatu egingo dute kapsulen salmenta, hurrenez hurren, 2020an eta 2021ean; salbuespena izango dira konposta daitezkeenak edo era mekanikoan edo organikoan erraz birzikla daitezkeenak.

"Dosi bakarreko kapsulen gero eta eskari handiagoa dago, eta gero eta hondakin gehiago sortzen dira; gainera, hondakin horiek botatzeko gune gutxi dago, ezin baitira beste ontzi batzuk bezala edukiontzi horira bota. Ekimen honek aukera emango digu kapsulak dituen lehengai guztiak eta kafe hondakina berreskuratzeko, eta bezeroei erraztasunak emango dizkiegu beren kontsumoak ingurumenean duen

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa

eragina gutxitzeko", azaldu du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

EROSKIk [PLS POOLING](#) enpresarekin lankidetzan estuan arituta garatu du birziklatze proiektu hori. Alderantzizko logistika prozesu bat diseinatu dute; hala, denda bakoitzean bildutako kapsulak EROSKIren plataformetara igorriko dituzte, eta gutxitu egingo dute hondakinok garraiatzean sorturiko inpaktua. Ondoren, PLS POOLING kudeatzaile baimenduak jasoko ditu tratatuak eta birziklatuak izan daitezten. Kafea ongarri bihurtu eta substratu gisa erabiltzen dute perretxikoekin, onddoekin eta abarrekin; plastikoa eta aluminioa, berriz, birziklatu eta urtu egiten dituzte, plastikozko eta aluminiozko ontzi berriak sortzeko. Prozesua bukatzean, bildu eta birziklatu diren kapsulen kudeaketari buruzko ziurtagiri batosatzen du PLS POOLINGek hilerok, eta hori ikusi ahal da zenbatekoa izan den karbono arrastoa eta zenbat gas isurtzeari utzi zaion horri esker.

Ekonomia zirkularra sustatu

EROSKIk konpromiso sendoa du ingurumena errespetatzeko, eta ekimen askotarikoak lantzen ditu bere jarduerak inguru hurbilean duen eragina murrizteko. Baliabideak modu jasangarrian erabiltzea, ingurumen arrastoa txikitzea, ekonomia zirkularra sustatzea, klima aldaketari aurrea hartzea, bioaniztasuna babestea... irizpide horiek sailatzen dira EROSKIrentzat, eta halaxe zerrendatu ditu, gainera, [Osasun eta Jasangarritasun arloko Konpromisoetan](#). Hain zuzen, kafe kapsulak birziklatzeko guneak jartzearena ere konpromiso horietan sartzen da.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)